



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2018KO IRAILAREN 14AN TOKIKO GOBERNU BATZARRAK EGINDAKO OHIKO BILKURA

Etorri diren batzordekideak:

Mikel Agirrezabala Ezkurdia

Etorri diren zinegotziak:
Jexus Peñagarikano Labaka
Jon Mikel Iglesias Otegui

Idazkaria: Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko irailaren 14an udaletxeko bilera-aretoan, goizeko hamaikak direnean Tokiko Gobernu batzarrak bilera egin zuen eta alboan adierazitako jaun-andreak elkartu ziren ohiko bilkura egiteko asmoz, horretarako deituta baitzeuden

Egintzaren buru Mikel Agirrezabala Ezkurdia alkatea izan zen eta idazkari lanetan Naia Ruiz de Eguino

Udalburuak egintza ireki dela adierazi ondoren, bilkura honetarako ditugun gaiak aztertu eta eztabaidatu dira eta honako erabaki hauek hartu dira

LEHENA:

1.- AURREKO TOKIKO GOBERNU BATZORDEAREN AKTEN ONARPENAK

1.1.- 2018KO UZTAILAREN 27KO AKTA

2018ko uztailaren 27an eginiko Gobernu batzarraren akta irakurri ondoren, hona Tokiko Gobernu Batzordeak, aho batez, harturiko

ERABAKIA

BAKARRA: Onartzea 2018ko uztailaren 27an eginiko Gobernu Batzarraren akta



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

BIGARRENA

2.- ARGITERIA PUBLIKOAREN HORNIKUNTZA EGITEKO ESLEIPEN PROZEDURAN LEYCOLAN S.A-REN ALDEKO ESLEIPENA ONARTZEA

2018ko uztailaren 27an Tokiko Gobernu Batzordeak onartu zuen Leycolan S.A.L enpresari esleitzea argiteria publikoaren hornikuntzaren kontratua.

Kontratua 48.992,44 (BEZ gabe) euroan esleituko da.

Ikusita 2018 JBAL 000005 espediente bidez, 4198337 abala ezarri dela 2.449,62 € behin betiko berme bezala

Ikusita 614 erregistro zenbakidun dokumentuan eskaturiko dokumentazio guztia egoki aurkeztu dutela.

Guztia kontutan izanik, hau da Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

LEHENENGOA.- LEYCOLAN S.A.L enpresari esleitzea argiteria publikoaren hornikuntza egiteko kontratua 48.992,44 € (BEZ gabe)

BIGARRENA.- LEYCOLAN S.A.L enpresari jakinaraztea kontratua formalitzatzeko 15 egun baliodun izango dituela esleipena jakinarazten denetik.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea esleipenean parte hartu duten enpresei eta kontuhartzaitza sailari

3.- BELABIETA KIROLDEGIKO TERRAZAK IRAGAZGAIZTEKO ETA FATXADA ESTALDURA BERRITZEKO OBRA LANAK ESLEITZEKO PROZEDURAN KONTRATZIO MAHAIAREN PROPOSAMENA ONARTZEA

Ikusita, 2018ko uztailaren 27an, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez onartu zituela Belabieta Kiroldegiko terrazen iragazgaizteko eta fatxada estaldura berritzeko obra lanak esleitzeko pleru administratibo eta teknikoak.

Ikusirik, Kontratazio profilean argitaratu zela prozedura ireki bidez egingo den esleipena.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Ikusirik, epea amaiturik aurkezturiko proposamenen 1.go gutunak 2018ko irailaren 4an ireki zituela Kontratazio Mahaiak. 2018TXJU0031 txosten juridikoa aintzat harturik partehartzaileei dokumentazioa osatzeko eskaera egin zitzaien eta denak egoki aurkeztu zutela dokumentazioa.

Ikusirik 2018ko irailaren 7an kontratazio mahaiak egintza publiko bidez 3. gutunazala zabaldu zuela eta Obra eta Zerbitzu teknikariari proposamenen azterketa egitea eskatu ziotela. Teknikariak 2018ko irailaren 10ean txosten teknikoa aurkeztu zuela.

Ikusirik 2018ko irailaren 12an kontratazio mahaia bildu zela eta bertan bi proposamen egin zituela:

1. 3. Gutunazaleko proposamenen balorazioan obra hasteko epea ez baloratzea, aurkezturiko 3 proposamenak bideragarri ez diren heinean.
2. UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS S.L enpresari esleitzeko proposamena egitea eskaintza hoberena delako

Aipatutako guztia kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

I

LEHENA.- Onartzea prozedura honetan 3.gutunazalaren balorazioan obra hasteko epea ez baloratzea, aurkeztu diren 3 enpresen proposamenak bideragarriak ez direnez.

BIGARRENA.- Onartzea Belabieta kiroldetik terrazak iragazgaizteko eta fatxada estaldura berritzeko obra lana UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS S.L enpresari esleitzeko prezio honetan:

BEZ GABE: 62.456,69€

BEZ-A: 13.115,91 €

DENERA: 75.572,60€

HIRUGARRENA.- UNEBIDE OBRAS Y CONTRATAS S.L enpresari honako dokumentazio hau aurkezteko eskaera egitea (jakinarazpena jaso eta 10 balioduneko eguneko epea izango du gehienez honako dokumentazioa aurkezteko):

1. Behin betiko berme gisa 3.122,83 euroko kopuruaren ordainketaren ziurtagiria aurkeztea (KUTXA ES48 2095 5043 94 1063684178 edo abal bidez)



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

2. Plegu Administratiboko 33 artikuluan aipatzen diren dokumentu eta ziurtagiri originalak aurkeztea.
3. Plegu Administratiboko 23(haserako plantilakoa) ezarritako dokumentuen eta ziurtagirien aurkezpena
 - a. Erantzunkizun zibileko aseguruia 102.401,87 eurokoa
 - b. Eraikuntzako arrisku orotarik aseguruia: 75.572,60 eurokoa
4. Plegu Administratiboko 37. Artikuluan eskaturiko dokumentuen eta ziurtagirien aurkezpena

LAUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea lizitazioan parte hartu duten enpresa guztiei eta kontratazio profileen argitaratzea erabakia.

HIRUGARRENA

3.- EGI ERAIKINEAN EMERGENTZIA DEKLARAZIOA

2018/310 Alkate Dekretu bidez Egialde eraikinean sortu diren pitzadura eta zartatuen larritasuna dela eta emergentzia deklaratu da.

Oraingoz ez da jakingo zenbateko kostua izango duen eraikinean sortu dena egonkortu eta gutxieneko segurtasuna bermatzeko. Alkateak dekretu bidez agindu arren kontratazio organoa Gobernu Batzordea izan daitekeenez (kopuruaren arabera) alkateak harturiko erabakia berrestea eskatzen da.

Aipatutako guztia kontutan izanik, hau da, Tokiko Gobernu Batzordeak aho-batez harturiko

ERABAKIA

I

LEHENA.- Onartzea 2018/310 Alkate Dekretu bidez Egialde eraikinaren inguruan harturiko neurriak eta emergentzia deklarazioa berrestea.

BIGARRENA.- Onartzea eraikinaren segurtasuna bermatze aldera beharrezkoak diren neurriak hartzeko kontratazioak burutzea.



IBARRAKO UDALA
(Gipuzkoa)
Euskal Herria

Eta eguneko gai-zerrendan aztertu beharreko beste gairik ez zegoenez, batzordeburu jaunak egintza amaitutzat eman zuen goizeko hamaikak eta hogeita hamaseiak direnean, eta nik, idazkari naizen honetan, horixe egiaztatu nahi dut

Ibarrako Udaleko idazkaria

Naia Ruiz de Eguino Garcia-Echave

Ibarran 2018ko irailaren 17 an